

ELKARBIZITZA NAHIZ ESKOLAKO ARAUAK (ENEA) 2020-21 IKASTURTEA

Fraisoro Eskola ikastetxe publikoa da eta honako printzipio hauek ditu:

- Ikaslearen garapen pertsonalari lagundu komunitate solidario batean.
- Ikaslearen giza heziketari lagundu, gure gizartean kritikoak eta sortzaileak izan daitezen.
- Ikasleari beharrezko ezagutzak eta teknikak irakatsi, etorkizunean beste ikasketa batzuk egitea edo lan munduan sartzea ahalbidetuko dietenak.
- Ezagutzak eta ikasteko nahiz lanerako ohiturak hartu.
- Askatasun pertsonala, eta oinarritzko eskubidea, betebeharra eta askatasuna sustatu.

Horregatik ezartzen dira elkarbizitzarako arau hauek, “Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez Kanpoko Ikastetxeetan ikasleen eskubide eta betebeharrak” arautzen dituen dekretuaren esparruan. Fraisoro Eskolan matrikulatzen den ikasleak, dokumentu honetako arau guztiak bete beharko ditu.

BARNE ARAUDIA

1. Ikastetxearen antolamendu orokorra

- 1.1. Klaseen ordutegia honakoa izango da:
Astelehenetik ostiralera, 8:00-14:30
Furgoneta zerbitzua, 7:30- 7:50ak arte
- 1.2. Heziketa Zikloko ikasketek (Erdi Mailakoek nahiz Goi Mailakoek) 2000 orduko iraupena dute, eta bi urtetan egingo dira.
- 1.3. Ikasturte hasieran honako informazioa emango zaio ikasle bakoitzari: eskola egutegia (eskola egunak, jaiegunak, oporraldiak, ebaluazioaldiak, eta LP aldiak), klase ordutegiak, talde bakoitzaren tutoreak, Elkarbizitza nahiz Eskolako Arauak, ebaluazioaldiak antolatzeke sistema, klase teoriko nahiz praktikoetara ekarri beharreko materiala, Agipad protokoloa (4 Eranskina) eta eskolako garraio zerbitzuari buruzko informazioa eta komunikazio politika.

2. Matrikulatzea

- 2.1. Erdi Mailako Heziketa Zikloetan izena emateko, ezinbesteko baldintza da erabat gaindituta izatea: DBH, IEE I, LH I, 2. BBB edo proba homologatua.
- 2.2. Goi Mailako Heziketa Zikloan izena emateko, ezinbestekoa da erabat gaindituta izatea: LOGSE Batxilergoa, UBI, IEE II, beste edozein espezialitatetako LH II, edo proba homologatua.
- 2.3. Izena eman ondoren 28 urte baino gutxiago duten ikasleek eskola aseguru tasak ordaindu beharko dituzte.

3. Fraisoro Eskolako komunikazio politika

- 3.1. Fraisoro Eskolan matrikulatzen den ikasleari, helbide elektronikoko bat domeinua) emango zaio (@ik.fraisoroeskola.eus).
- 3.2. Ikasleak matrikula egiten duenean, datuen babeserako baimena sinatzen du.

4. Ebaluazioak

- 4.1 Ebaluazio irizpideak: Ikasturte hasieran, irakasle bakoitzak idatziz emango dizkio ikasleei berak ematen dituen moduluen ebaluazio irizpideak, programazioarekin batera (Helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, eta ebaluazio sistema).

Ethazin doazen moduluentzako, 2 eranskinean.

- 4.2 Ebaluazioei dagokienean, honako hau ezartzen da:

1LOE (Erdi Maila eta Goi Maila)

- Ebaluazio ez ofizialak: 1. eta 2. Ebaluazioa
- Ebaluazio ofizialak:
 - ✓ 1 Kurtso Amaierako Ebaluazioa 1
 - ✓ 1 Kurtso Amaierako Ebaluazioa 2

2LOE (Erdi Maila eta Goi Maila)

- Ebaluazio ez ofizialak: 1.Ebaluazioa
- Ebaluazio ofizialak:
 - 2 Kurtso Amaierako Ebaluazioa 1 (+ gainditu gabeko 1. mailako moduluak)
 - 2 Kurtso Amaierako Ebaluazioa 2 (+ gainditu gabeko 1. eta 2. mailako moduluak)

Moduluren bat errepikatu behar izatekotan, modulu osoaren azterketa egin beharko da.

Ethazin doazen moduluentzako 2 eranskinean

- 4.3. Ebaluazio ez ofizialetan, eta errekupeazioak (ez ofizialetan) egitekotan, errekupeazio hauek arratsalde izango dira, klase ordutegitik at. Azterketara ez agertzea, nahiz eta justifikatua egon, deialdia galtzea dakar.
- 4.4. Ikasle guztiek dute deialdi ofizialetara aurkezteko eskubidea. Azterketara ez agertzeak deialdi hori galtzea dakar (2010/1721 Aginduan zehazten duena izan ezik).
- 4.5. Heziketa Zikloak egiten ari diren ikasleek 4 deialdi izango dituzte modulu bakoitza gainditzeko (Erdi Mailan nahiz Goi Mailan), LP (*Lantokiko Prestakuntza*) izan ezik, izan ere azken honek bi deialdi izango ditu.
- 4.6. Ikasle guztiek dute eskubidea beren kalifikazioetan eragina izan dezaketen azterketa edo idatzizko proba oro zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko.
- 4.7. Kalifikazioak argitaratu eta ikasleei jakinarazten zaizkientetik, bi eskola eguneko epea izango dute hauek azterketak ikusi eta kalifikazio horri buruzko erreklamazioak aurkezteko.
- 4.8. DUAL-ean ikasten duten ikasleak, 83/2015 DEKRETUA, ekainaren 2koaren arabera arautuko dira.
- 4.9. **Erreklamazio-prozedura:**

Ikasleak, erreklamazioa egiteko, ikasketa buruari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko du idazkaritzan. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleek jarri dioten eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa; edota ikasleak erreklamazioa egiteko dituen bestelako arrazoiak.

Ikasketa buruak dagokion departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa.

Departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Programazioa eta ebaluazio-irizpideak zuzen aplikatu diren aztertuko da eta baita zuzenketa 10 ereduarekin egoki egina

dagoen. Departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez.

Departamentuak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita. Departamentuak, idatziz erantzungo dio ikaslearen erreklamazioari.

Ethazin doazen moduluentzako 2 eranskinean

4.10. Erreklamazio prozeduran, departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak.

Departamentuak erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari, eta horrek interesdunari jakinaraziko dio.

Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.

Ethazin doazen moduluentzako 2 eranskinean

4.11. Probak, informeak, lanak, txostenak edo azterketak irakasleak gorde beharko ditu, gutxienez 18 hilabetetan.

4.12. LP modulua egin ahal izateko, modulu guztiak gaindituta izan behar dira, Goi Mailako *Basoa Kudeatzeko eta Ingurunea Kontserbatzeko Proiektua* modulua izan ezik.

4.13. Ebaluazio-buletinak ikasleei ebaluazio saioaren eta errekupeazioaren ondoren banatuko zaizkie. Buletinak, 7 eguneko epean tutoreari bueltatu beharko zaizkio aitak, amak edo tutoreak sinatu ondoren. Adin nagusiko ikasleek beraiek sinatu beharko dute.

Ethazin doazen moduluentzako 2 eranskinean

4.14. LP (*Lantokiko Prestakuntza*) modulua ebaluatzeko irizpideak: enpresako tutorearen balorazioa, ikastetxeko tutorearen balorazioa, lantokiko egonaldiaren asteroko jarraipena eta modulu honi dagozkion ordu guztiak betetzea. LP modulua kalifikatzeko garaian gai edo ez gai izango da.

4.15. Heziketa Ziklo baten (dela Erdi Mailakoa, dela Goi Mailakoa) titulua eskuratu ahal izateko, ikasleak modulu guztiak gainditu beharko ditu.

5. Ikasturtea errepikatzea (EHAO 2010/03/24 56. Zbkia ORDENA 2010/02/19)

- 5.1. Ikasle batek ikasturtea errepikatu ahal izateko, gaitasun atal (konpetentzia atal) bati lotutako modulu bat gainditu behar du gutxienez (ikasleari zerrenda bat emango zaio, heziketa ziklo bakoitzean gaitasun horiek dituzten moduluena).
- 5.2. Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Heziketa Zikloak egiten dituzten ikasleek ikasturtea errepikatu beharko dute 3 edo 3 modulu baino gehiago gainditu gabe badituzte, EDO gainditu gabe dituzten moduluen ordu kopurua 300 ordu baino gehiagokoa bada guztira.
- 5.3. Ikasturtea errepikatzen duen ikasleak gainditu gabe dituen moduluekin errepikatuko du.

Ethazin doazen moduluentzako 2 eranskinean

6. Klaseetara agertzea

- 6.1. Klaseetara agertzea eskola honetako ikasle guztien eskubidea eta betebeharra da.
- 6.2. Klaseetara egindako hutsegiteak idatziz justifikatu beharko dira. Ikasle bakoitzak bere tutoreari justifikatu beharko dio, hutsegitea gertatu eta 7 eguneko epean. Frogagiri ofizialak aurkeztu beharko dituzte.
- 6.3. Justifikatu gabeko 36 hutsegite gaindituz gero, ikasleak ikasturteko modulu guztietan ebaluazio azterketak egiteko aukera galduko du eta baita aurreko ebaluazioetako nota ere. Deialdi ofizialetara soilik aurkezteko aukera izango du. Tutoreak idatziz jakinaraziko dio ikasleari. Halaber, adin txikiko ikasleak direnean kopia bidaliko zaio gurasoei, tutoreari edo ordezkari legalari.

Ethazin doazen moduluentzako 2 eranskinean

- 6.4. Modulu batean Ebaluazio jarraitako eskubidea mantendu ahal izateko ikaslearen asistentzia %80a baino gutxiago ezingo da izan (falta justifikatuak+ ez justifikatuak).

Modulu baten orduen %20 baino hutsegite gehiago eginez gero (falta justifikatuak+ez justifikatuak), ikasleak ebaluazio eskubidea galduko du baita aurreko ebaluazioen nota ere (klaustroaren erabakia kontrakoa ez bada behintzat) eta ondorioz azterketa ofizialetara joan beharko du.

Ethazin doazen moduluentzako 2 eranskinean

- 6.5. Ez etortze justifikagarritzat hartuko dira:
 - Mediku+ kontsultak.
 - Betebehar saihestezin bat.
 - Gaixotasunak eragindakoak.
 - Salbuespenen bat dagoenean tutore bileran erabakiko da.

Kasu hauetan guztietan dagokion agiri ofiziala ekarri beharko dio ikasleak tutoreari, falta egiten den egunetik 7 eguneko epean.

- 6.6. Klase teoriko eta praktikoetan, ikasleek beharrezko segurtasuneko ekipamendua, tresnak edo/eta eskolako materiala eramango dute, eta bestela, ezingo dute klaseetara agertu. Klaseetara ez agertze hori hutsegite bezala hartuko da.
- 6.7. Klase teoriko eta praktikoetan, ikasleek ezin izango dute droga, alkohol nahiz antzeko sustantziarik kontsumitu ez eta beraien eraginpean egon. Arau hau betetzen ez baldin bada, irakasleak eskolako araudian zehaztutako prozedura jarraituko du.
- 6.8. Kanporatua den ikasleak zaintzako irakaslearengana joan behar du.

7. Ikasleen parte-hartzea

- 7.1. Ikasle guztiek dute eskubidea hezkuntza egokia jasotzeko ikastetxeko programazioaren barruan, eta lortu nahi diren helburuetarako baldintza material egokiak izateko.
- 7.2. Ikasle guztiek dute eskubidea eskolako bizitzan eta kulturaren parte hartzeko. Eginkizun horretarako, gela bakoitzak ordezkari eta ordezkariorde bat aukeratuko ditu ikasturte hasieran.
- 7.3. Ikasleek ikastetxearekin lotutako langile eta ondasun guztiak errespetatuko dituzte.
- 7.4. Ikasleek lagundu egin beharko dute irakaskuntzaren kalitatea hobetzen.
- 7.5. Eskola eta ikasleen arteko komunikazioa errazteko lan talde bat sortuko da. Lan talde horretan egongo dira geletako ordezkariak eta ikastetxeko zuzendaritza taldea. Talde hau hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. Ordezkariak jakinaraziko die ordezkatzan duten ikasgelari jorratu diren gaiak eta hartu diren erabakiak.

8. Batzarra eta bozketak

- 8.1. Ikastetxean izena emandako ikasleen bilera da batzarra. Aurrez deitua izan behar du, eta ikastetxeko jarduerekin lotutako gaiei buruz edo gizarteko gertaera oso garrantzitsuei buruz hitz egiteko helburua du.
- 8.2. Batzarra eskola orduetatik kanpo egingo da, zuzendaritzaren iritziz egoera oso bereziak diren kasuetan izan ezik. 24 ordu aurretik deialdiaren arrazoia jakinaraziko zaio zuzendaritzari.

COVID19a dela eta, batzarra gela bakoitzean izango da.

- 8.3. Gai zerrenda bat izango da, eta dagozkien lekuetan eta ikastetxeko zuzendaritzan jarriko da. Adierazi beharrekoak dira:
 - Batzarraren eguna, lekua eta ordua.
 - Aztertuko diren gaiak.
 - Deialdia egiten duten pertsonak edo/eta erakundeak.

- 8.4. Bozketak klase orduetatik kanpo egingo dira, horretarako zuzendaritzari baimena eskatuko zaio 24 ordu aurretik eta berauei deialdia helarazi.
- 8.5. Bozketa gela bakoitzean egingo da eta dagokion tutorea edo irakaslea bertan dela.
- 8.6. Batzarretan parte hartzea eta botoa ematea librea eta borondatezkoa izango da, eta ikastetxean izena emandako ikasketetara agertzen den orok izango du eskubidea horretarako.
- 8.7. **Botoen zenbaketa:** Bozketa amaitu ondoren, gela bakoitzean botoak zenbatuko dira. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, gelako eguneroko jardueretan parte hartzen ari diren ikasle kopuruaren erdia gehi bateko *quorum*era iristen ez bada, botazioak ez du baliorik izango, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, deialdia besterik gabe errefusaturik geldituko da.
- 8.8. **Quoruma eta indar loteslea:**
Bozketaren emaitza baliozko izan dadin, *quorum* hau beharrezkoa da: gelako eguneroko jardueretan parte hartzen ari diren ikasleen botoen erdiak gehi bat.

Greba deialdia bat dagoenean eta dagokion deialdia aurkeztu ondoren, gelan egindako batzarrean ateratzen dena errespetatu beharko dute bileran parte hartu dutenek.
Batzarrera azaldu nahi ez duena desbinkulatutzat joko da. Desbinkulatuak bozketa egin aurretik izena eman beharko dute (ez dute argitu beharrik beraien postura) eta hauek eta bozketako emaitza errespetatzen dutenak bakarrik izango dute falta justifikatua.
- 8.9. **Bozketen akta** jasoko da eta honakoa jasoko du:
– Eguna, lekua eta ordua.
– Bertaratu den ikasle kopurua, baiezeko botoak, ezezeko botoak, zuriak, baliogabeak eta abstentzioak (hauek ez dira kontuan izango botoen %a zenbatzean).
– Bozketaren emaitza, proposamenari baiezekoa edo ezezekoa eman zaion adieraziz. Emaitza gela bakoitzeko izango da.
- 8.10. Tutoreak berehala ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio akta.

9. Greba eta geldialdiak

- 9.1. Greba egiteak ikastetxea uztea esan nahi du grebak dirauen bitartean.
- 9.2. Ikastetxeak zerbitzu guztiak edota gutxieneko zerbitzuak emango dizkie grebarako deialditik desbinkulatu diren ikasleei eta/edo greba egiten ez dutenei.
- 9.3. Greba egunean, ikastetxeak, eskolak emango direla, bai eta egun horretan aurreikusitako zeuden probak edota lanak egingo direla, bermatuko du. Horrela izango da, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere, eta kalterik egin gabe ikasleen eta dagokion irakaslearen artean proba edota lanak egiteko data aldatetaz

hartu litekeen erabakiari.

10. Ikasketa bidaiak

- 10.1. Ikasleek ikasketa bukaerako bidaia egin ahal izango dute.
- 10.2. Gehienera ere bi eskola egun erabili ahal izango dira, beti ere hezkuntzarako interesa duten jarduerak egiten badira bidaian. Ikasleekin ikastetxeko irakasle bat joango da, planifikatutako jarduerekin lotura gehien duen moduluko irakaslea. Ikasketa bidaia egiteko ikasleekin joateko irakaslerik ez badago, ezingo da eskola egunik erabili.
- 10.3. Ikasketa-bidaia, OOGak onartutako ekintza osagarria izango da.

11. Norberaren gauzak

- 11.1. Norberaren gauzei dagokienez, lapurreta, gauzak galtzea edo bestelako gertakaririk izanez gero, ikastetxeak ez du ardurarik izango.

12. Arau Bereziak

- 12.1. Mobilaren erabilera: Klase orduetan irakaslearen baimenik gabe, ez dago mugikorra erabiltzerik. Norbaitek erabiliko balu, irakasleak kendu eta berak gorde edota zuzendaritzara eramango du. Goizaren bukaeran jaso ahal izango da.
- 12.2. Etxetik gelara ekarritako portatil, tablet, e.a. ordu lektiboetan eskolako gaietarako soilik, eta beti ere irakaslearen baimenarekin erabil daitezke. Bestelako erabilerarik izango balu, neurriak hartuko dira.
- 12.3. Gela bakoitzeko garbitasuna eta bertako gailuen ardura, gela bakoitzarena izango da. Erabilera desegokirik balego, eta egilea(k) azaldu ezean, gela guztia izango da arduradun.
- 12.4. Debekatuta dago edozein motatako droga eta alkohola edukitzea eta kontsumitzea. Arau hau ez betetzea hutsegite oso larria da eta AGIPAD protokoloa jarraituko dugu.

BARNETEGIKO ARAUDIA (2020-2021)

Fraisoro Eskolak egitura akademikoa du, eta horrezaz gain, BARNETEGI zerbitzua ere eskaintzen du astelehenetik ostiralera, ikastetxetik urrun edo gaizki komunikaturik bizi diren ikasleentzat. Jangela zerbitzua dago barnetegian dauden ikasleentzat: gosaria asteartetik ostiralera, bazkaria astelehenetik ostiralera, eta afaria astelehenetik ostegunera.

Kolektibo bat elkarrekin egon eta bizitzeak antolamendua eskatzen du, eta arau batzuk bete eta errespetatzea. Horretarako dago Elkarbizitzako nahiz Eskolako araudia. Edonola ere, norbait barnetegira datorrenean antolamendu eta arau hauek onartzen dituela ulertzen da, eta gainera errespetatzeko konpromisoa hartzen duela. Horrela ez balitz, ikasleak beste egoitza edo egoteko leku batzuk aukera ditzake.

Egoitzaren **HELBURUA** ikasleek eskola honetan ikasteko beharrezko bitartekoak eskaintzea da, baina, horren ordainetan, barnetegian daudenez ikasketetan probetxamenduari eta interesari dagokienean gutxiengo batzuk bete behar dituzte, eta jokabide egokia izan behar dute egoitza eskubidea mantentzeko. Gutxiengo hauetakoren bat ez betetzea nahikoa izango da ikasleei egoitza eskubidea kentzeko.

Justifikatu gabeko 18 hutsegitek barnetegitik kanporatzea ekar lezake.

Barnetegiko ikasleen **ORDUTEGIA** hau da:

07:15-7:45: Gosaria (asteartetik ostiralera).

14:30: Bazkaria (astelehenetik ostiralera)

20:00-20:15: Afaria (astelehenetik ostegunera). Jangela hutsik gelditu behar du 20:45tako.

23:00: Logeletan egongo dira

23:30: Isiltasuna

JANGELAN autozerbitzu sistema erabiliko da.

Osasun araudia betetzeko, ikasleek ezingo dute sukaldean eta alboko geletan sartu eta egon.

Bestalde, ikasleek jarrera, ordena eta heziera egokia izan behar dute jangelan. Jangela garbi mantentzeko, ezingo da praktiketako jantzi zikinekin sartu bertan.

Gelak garbi eta txukun eduki behar dituzte ikasleek (oheak eginda eta bakoitzak bere gauzak jasota). Barnetegiko altzariak eta egoitzako beste gauzak behar bezala ez erabiltzeagatik izandako kalteak ordaindu egin beharko dituzte, bai konponketak bai material berria, adierazitako moduan eta garaian. Kalteen erantzukizuna inork bere gain hartuko ez balu, konponketen gastuak logela, gela, egongela edota egoitzako kide guztien artean ordainduko dira, proportzionalki.

Ikasturte hasieran 100€ko fidantza ordaindu beharko du ikasle bakoitzak eta kurtso amaieran, ezer berezirik ez bada, itzuli egingo da.

Barnetegia itxita egongo da klase orduetan, erabat justifikatuak diren egoeretan izan ezik.

Barnetegian ez dauden ikasleak ezingo dira egoitzako geletara (logeletara) sartu.

Eskolatik atera nahi badute, barnetegiko arduradunari jakinarazi beharko diote ikasleek. Baimen orri bat bete beharko dute, eta arduradunari eman atera aurretik. Adin txikiko ikasleek, gurasoen edota dagokion arduradunaren baimena beharko dute. Sukaldeko lanak antolatzeko, ikasleek aurrez abisatu beharko dute bazkaltzera edo afaltzera agertu behar ez badira.

Arratsaldean, 15:00-20:00ak bitartean, eskola eremutik kanpo dagoen barnetegiko ikaslearen ardura ez da eskolarena. Gorabeheraren bat gertatuz gero, ikaslea da azken arduraduna eta bere etxekoekin jarri beharko da harremanetan.

Barnetegian dagoen ikasleren bat **GAIXO** jartzen bada, COVID protokoloa aplikatuko da.

Debekatuta dago edozein motatako droga eta alkohola edukitzea eta kontsumitzea. Arau hau ez betetzea hutsegite oso larria da, eta egoitzatik betirako botatzea ekar dezake. AGIPAD protokoloa jarraituko dugu.

Barnetegian erretzea erabat debekatua dago. Gelaren batean arau hausteren baten zantzurik balego, gela horretako arduradunak izango dira arau haustearen erantzuleak eta beraientzat izango lirateke ondorioak.

Ezingo da inolako objekturik jarri (toailak, zapatak, loreontziak, etab.) egoitza barrutiko leihoetan.

Barnetegiko eta jangelako altak, bajak eta aldaketak idazkaritzan jakinarazi beharko dira hiruhileko berria hasi aurreko hamabost egunetan, eta beti ere idatziz.

Greba egiten duten barnetegiko ikasleek ez dute ostatu eta jatordu zerbitzurik izango eta greba egunean ikastetxetik irten beharko dira. Nahiz eta ostatu eskubidea galdu, lo egiteko aukera kasu bakoitzean aztertuko da. Geldialdia egiten duten barnetegiko ikasleek, eta geldialdiak ordubete baino gehiago irauteaz gain azken klase orduari eragiten baldin badio, ezingo dute ikastetxean gelditu eta bazkaltzeko zerbitzua galduko dute.

JANGELAKO ARAUDIA (2020-21)

Fraisoro Eskolak, egitura akademikoaz gain, egoitza zerbitzua ere eskaintzen du. Egoitza zerbitzu horretako zerbitzuetako bat JANGELA da.

Kolektibo bat elkarrekin egon eta bizitzeak antolamendua eskatzen du, eta arau batzuk bete eta errespetatzea. Horretarako dago antolamendu eta jarduera araudi hau. Edonola ere, norbaitek jangela zerbitzua erabiltzen duenean antolamendu eta arau hauek askatasunez onartzen dituela ulertzen da, eta gainera errespetatzeko konpromisoa hartzen duela.

JANGELAKO ORDUTEGIA: 14:30 astelehenetik ostiralera

JANGELAN autozerbitzu sistema erabiliko da.


Osasun araudia betetzeko, ikasleek ezingo dute sukaldean eta alboko geletan sartu eta egon. Horrez gain, jangela garbi edukitzeko, ezingo da praktiketako jantzi zikinekin sartu.

Bestalde, ikasleek jarrera, ordena eta heziera egokia izan behar dute jangelan.

Sukaldea antolatzeko, bazkarira ez datorrenak aurrez jakinarazi beharko du.

Jangelako altak, bajak eta aldaketak idazkaritzan jakinarazi beharko dira hiruhileko berria hasi aurreko hamabost egunetan, eta beti ere idatziz.

1 ERANSKINA: ANTOLAKETA



ARDURAK	funtzioak
LOREZAINZA DPTU BURUA	Dptu bilerak antolatu eta zuzendu, Dptuburu eta ZT bileretan parte hartu, Dptuko proiektuak koordinatu / Baliabide ekonomikoak kudeatu, ZT-rekin batera.
GOI MAILA DPTU BURUA	
NEKAZARITZA DPTU BURUA	
LOP-Laneratze eta Orientazioa DPTU BURUA	Ikasle-taldearen kudeaketa eta ikasketa-buruarekin koordinazioa
LORE 1.maila TUTOREA	
LORE 2.maila TUTOREA	
NEK 1.maila TUTOREA	
NEK 2.maila TUTOREA	
GOI 1.maila TUTOREA	
GOI 2.maila TUTOREA	
Eskola Agenda 21/Hondakin arrisksuen kudeaketa	INGURUGELAREkin koordinazioa / Hilabetearen behin, Tolosan koord bilera / Ikasturteko gaiaren lanketa: DCB azterketa, Kudeaketan proposamenak, Parthetartzea / LH-EA21 lanketan jardutea
Lan arriskuaren prebentzioa	Zuzendariarekin Koordinatzea, plana bermatzeko eta beharrak aztertzen joateko / Formazio-bilerak Gipuzkoan, urtean 2 / Larrialdi planaren ardura (ikus Plan) / Simulakroa antolatu, urtean 1 / Lan arriskuaren prebentzioaren inguruko dokumentazioa egiten eta bidali Jaurilaritza / Larrialdi sistemen azterketa eta ardura: Estintoreak, suteen detektoreak, alarmak..azterketak pasa behar dituzte guzti hauek / Botikina egoki egotea / Segurtasun arroparen erostetaren ardura
FCT koordinatzailea	PRO209 FCT jarraitzea eta betetzen dela bermatzea / FCT talde-arduradunak koordinatzea / FCT hezkuntzako aplikatiboa betetzea
FCT LORE talde arduraduna	FCT taldekoak antolatzea / Taldeko "begiratzailak" koordinatzea / AEG aplikatiboa betetzea
FCT NEK talde arduraduna	
FCT GOI talde arduraduna	
DUAL koordinatzailea	FP dual Gipuzkoako koord bileretara joan eta arduradunarekin kontaktua / "FP dual" aplikatiboen erabilpena bermatu / Enpresak eta ikasleak topatu eta informatu / Dokumentazioa, epeak, ikuskaritzak bermatu / Dual talde-arduradunak koordinatzea / Dual planen bat eramatea
DUAL tutoritza	dual planak egitea / ikasleen ebaluazioak egitea/irakasleekin koordinatzea
LAN BOLTA	Datuen zerrenda eguneratuta izan / Lantegietako beharrak jaso eta ikasleei mailing-a egin / Interesatuak CV-ak jaso eta beharrezkoa bada, irakasleekin kontrastatu / CV-ak enpresara bidali eta eskaintzaren jarraipena egin / Interesaturik ez balego, aukerak aztertu: Lanerako prestakuntzako ikasleak
ETHAZI koordinatzailea	Tknikarekin koordinatzea / Irakasleekin eta ZT-rekin koordinatzea / Zentroaren Ethazi aholkularitza
INFORMATIKA	Eskolako ekipo informatikoen ardura / Ahalik eta matxura gehien konpontzea /Aisharekin koordinatzea eta matxuren berri ematea / Irakasleek, klaseetarako behar dituzten programak erraztea (ardura, irakasleak) / Sare sozialen erabilera sustatzea: Facebook, Instagram, Twitter / Moodle plataforma: Ikasturteko ikasgaiak, ikasleen kudeaketa / IKT dinamizazioa
FITO ARDURADUNA	Fito instalazioak mantendu / Produktuen erabilera ikuskatu eta zehaztu / Dokumentazioa egunean eraman: Fitxa-teknikoak, ikuskaritzak, non zer erabili den... / EPI-en egokitasuna eta eskuragarritasuna bermatu / Fito makinaria egoki mantendu / Fito karneten kudeaketa
BARATZE ARDURADUNA	Baratzeko eremuaren -Kanpo baratza, negutegietakoa eta frutarbolak- antolaketa eta mantenu / Barazki ekoizpena bermatu urteko txostenaren arabera eta sukalde barazki hornitzea bermatu / Ekainean, ikasturteko txostena egin zuzendaritzarako / Baratzeko proiektuak koordinatu eta bideratu -Lino proiektua etab / Urteko planifikazioa egin eta udarako lanak antolatu
BASO EREMU eta ARBORETUM	Eremuak -basoak, erreka, landaketak, arboretuma- identifikatu eta planoan jarri /Ikasturteko planifikazioa
LORATEGIAK	Lorategi eremuak planoan jarri eta definitu / Urteko planifikazioa egin eta udarako lanak aurreikusi
LOREGINTZA	Loregintzako eremuen, plangintza, antolaketa eta mantenua: Sarrera nagusia, eskaparatea, pasealekua, barneko lorategiak, leihoetako lorontziak eta arte floraleko tailerra / Loregintzako proiektuak koordinatu eta bideratu / Urteko planifikazioa egin eta udarako lanak aurreikusi
MINTEGIAK	Mintegiak zehaztu eta planoan jarri / Ekoiztu nahi diren landareen plangintza / Mintegien mantenu ardua eta mantenua egingo dutenen koordinazioa
ERLATEGIA	Erlantzaren plangintza (aurreikusi egin beharreko lanak urtean zehar), kontrola eta mantenua.
IKUILUKO arduraduna	Ikuiluaren plangintza, erostetak, salmentak
TAILER arduraduna	Tailerra eta bertako makina eta herramienten ardura eta antolamendua / Hondakinen kudeaketa ardura.
INSTALAKUNTZA TAILER arduraduna	Tailerra eta herramienten ardura eta antolamendua / Hondakinen kudeaketa ardura.
MAKINARIA haundia	Mantenua, puntuan jartzea, ITV-a pasatzea, dokumentazioaren kudeaketa, matxuren berri jaso eta kudeatzea
MAKINARIA txikia eta BASOGINTZAKO TAILERRA	Mantenua, puntuan jartzea, dokumentazioaren kudeaketa, matxuren berri jaso eta kudeatzea, EPI-en mantenu egokia eta eskuragarritasuna bermatzea.
IBILGAILUAK	Mantenua, puntuan jartzea, ITV-a pasatzea, dokumentazioaren kudeaketa, matxuren berri jaso eta kudeatzea
LANERAKO PRESTAKUNTZA / LANBIDE	Ikastaroen antolaketa, Lanbiderekin harremana.

2 ERANSKINA: ETHAZI ikasleentzat

4. Ebaluazioak

4.1. Ebaluazio irizpideak: erronka bakoitzaren hasieran idatziz emango zaizkie ikasleei erronkaren ebaluazio irizpideak, helburuak, edukiak, eta ebaluazio sistema.

4.2. Ethazi metodologia erronketan oinarrituta dago eta erronka bakoitzak ebaluazio jarraia izango du. Erronka bakoitza aurkezterakoan zehaztuko dira ebaluazio irizpideak. Kurtso amaieran jarriko dira moduluko notak.

4.9 Erreklamazio prozedura

Ikasleak, erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko du idazkaritzan. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den emaitza, balorazioa; zilegi litzatekeen emaitza; edota ikasleak erreklamazioa egiteko dituen bestelako arrazoiak.

Ikasketa buruak dagokion departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa.

Departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Erronkaren txostenean jasotako ebaluazio irizpideak zuzen aplikatu diren aztertuko da. Departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez.

Departamentuak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita. Departamentuak, idatziz erantzungo dio ikaslearen erreklamazioari.

4.10 Erreklamazio prozeduran, departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

Departamentuak erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari, eta horrek interesdunari jakinaraziko dio.

Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.

4.13. Ikasleei ebaluazio buletina hiru hilabeteetan behin, banatuko zaie. 7 eguneko epean tutoreari bueltatu beharko zaizkie aitak, amak edo tutoreak sinatu ondoren. Adin nagusiko ikasleek beraiek sinatu beharko dute. Erronka bakoitzean Konpetentzia tenikoetan lortutako emaitza erronka bakoitzaren ondoren jakinaraziko zaio ikasleari ikasgelako kortxoan edota moodle plataformaren bitartez”.

5. Ikasturtea errepikatzea (EHAO 2010/03/24 56. Zbkia ORDENA 2010/02/19)

5.3. Lehengo maila errepikatzen duen ikasle batek, klasera etorri behar du eta gainditu gabeko moduluek parte hartzea duten erronka guztiak bere osotasunean egin beharko ditu. Bestelako ikasleen (lehenengo aldiz ikasturtea egiten dutenen) asistentzia betekizun berdina izango ditu. Ikasturte honetan ateratako erronken nota teknikoa gainditu gabeko moduluen mediarako soilik hartuko dira kontutan (gaindituak iada espediente akademikoan jasota daude). Konbalidatutako ikasgaiekin berdin jokatu da. Ikasturteko konpetentzia transbersalak hartuko dira kontutan (ez aurreko urtekoak).

2. mailara modulu pendienteekin pasatzen den ikaslearen kasuan, **2 kurtso amaierako ebaluazio 1 deialdian** gainditu beharko dituzte froga teoriko edota praktiko baten bitartez modulu osoko froga eginez. Hurrengo deialdian, hau da, **2 kurtso amaierako ebaluazioa 2 deialdian** modu berean jokatu da.

6. Klaseetara agertzea

6.3 eta 6.4. Modulu baten orduen %20^a hutseginez gero (justifikatuak + justifikatu gabeak), modulu horretan parte hartzen duten erronka guztiak gainditu gabe gelditzen dira. Egoera hau gertatuz gero, gaitasun teknikoak erreperatzeko aukera bat egongo da, deialdi ofizialetan.

Justifikatu gabeko 36 hutsegite gaindituz gero, ikasleak ikasturteko modulu guztietan ebaluazio azterketak egiteko aukera galduko du eta baita aurreko ebaluazioetako nota ere. Deialdi ofizialetara soilik aurkezteko aukera izango du



3 ERANSKINA: AGIPAD PROTOKOLOA

“Drogen abusuaren ikerketa eta prebentziorako gipuzkoar elkarteak”

TESTUINGURUA:

Ikastetxea, bertako ikasle guztien ongizate fisiko, psiko eta sozialetaz arduratzen da, drogen kontsumoak ikaslearen ongizatean kalte egin dezakeela onartu eta konpartitzen du. Onartzen du aldi berean, drogen abusuaren aurrean babes faktoreekin erlazionatzen diren gaitasun, balore eta jarreretan eragin handia duela. Guzti honengatik, 2018/19 ikasturtean, gure ikastetxeko irakasle eta ikasleen ordezkariak batek, drogen abusuaren inguruko hausnarketa eta protokolo adostua onartu genuen. Adostutakoa, 2019/20 ikasturtetik aurrera indarrean jartzeko asmoz.

Beraz, ikasleei zuzendutako zenbait programa abian jartzea beharrezkotzat ikusi da eta ondorengoak erabaki dira:

- 1.- Agipad elkartearekin droga kontsumoaren inguruko tailerrak egitea ikasleekin
- 2.- Baloreetan hezten programaren barruan adizioen inguruko hausnarketak bultzatzen dituzten ekintzak antolatzea.
3. Ikastetxean drogen kontsumoarekin erlazionatzen diren egoerak arautzea eta protokolo honetan dagoen “taula-araudia” betearaztea.

DIZIPLINA ARAUAK

Diziplina neurrien helburua ikasleen osasuna eta ikasteko gaitasunak babestea da, ikastetxe barnean edota ikastetxeak antolatutako klase teorikoetan eta praktikoetan drogak kontsumitzeko asmoa kenduz eta baita drogen eraginpean dauden bitartean eta, batez ere, praktiketara izan dezakeen arriskuez jabetzeko.

Ikastetxeak drogen erabileraren debekua du bertara hurbiltzen diren pertsona guztientzat.

Arau-haustek bi motatakoak izan daitezke:

- Drogen jabetza
- Drogen intoxikazioa



AGIPAD PROTOKOLOAREN “ARAUDI-TAULA”

	JARRERA DESEGOKIA eta ONDORIOAK: DROGAK IZATEA	JARRERA DESEGOKIA eta ONDORIOAK: DROGENGATIK INTOXIKAZIOA
Fraisoro Eskolako eremuan, ikasle batek, Agipad protokoloan adostutako “jarrera desegokia” azaltzen badu, adostutako “ondorioak”.	Eskolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabidea dela adierazten zaio ikasleari eta dagokion ohartarazpena jasoko duela jakinarazten zaio. Adin txikikoa bada, familiari ere jakinaraziko zaio.	<ul style="list-style-type: none"> * Drogen eraginpean eta eskolako jarduna jarraitu ezinik dagoela eta bere jardunean arriskua jasan eta eragin dezakeela jakinarazten zaio ikasleari * Gelatik edota praktika lekutik joateko eskatuko zaio ikasleari.
	<p>Neurri zuzentzaileak ezartzerakoan lehenasuna izango dute lan sozialak eginez orduak betetzea (Fraisoro Zahar egoitzan, Uliazpe egoitzan... lan sozila egitea). Azken aukera izango litzateke zehaztutako denboraldi baterako kanporatua izatea.</p> <p>COVID19a dela eta, lan sozialak ezin izango dira egin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> *Goiz horretako orduetako asistentzi falta izango du eta eskola utzi beharko du. Adin txikikoen kasuan, familiari bere bila etortzeko eskatuko zaio. <p>Intoxikazio-gradua handia bada, segurtasuna ziurtatzeko eta adin txikikoa bada ikaslea, familia edo tutoreari deituko zaio bere bila etortzeko. Eta adin nagusikoa denean, ikasleak esandako pertsonari deitzea eskainiko diogu</p>

		<ul style="list-style-type: none">* Ikaslea ados ez badago, kontrakoa frogatzeko aukera eskainiko diogu eta ondo dagoenaren egun bereko agiria ekarri beharko du eskolara.* Hurrengo egunean, ikasleari jakinaraziko zaio eskolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabidea izan duela eta dagokion ohartarazpena jasoko du* Neurri zuzentzaileak ezartzerakoan lehentasuna izango dute lan sozialak eginez orduak betetzea (Fraisoro Zahar egoitzan, Uliazpe egoitzan... lan soziala egitea). Azken aukera izango litzateke zehaztutako denboraldi baterako kanporatua izatea* Beharrezkoa ikusten bada, eta ikasleak edota familiak nahiko balu, aholkularitza eskaini ikasleari.
--	--	--

4 ERANSKINA: DIZIPLINA ARAUAK

201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

Dekretu honen, printzipio orokorrak (50.art) dira:

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.
2. Betebeharrak ez direla ikusten duen irakasleak edo administrazio edo zerbitzuetako langileak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

JOKABIDE DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIAK ERAGITEN DIZKIOTENAK

JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak. ***
- c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haien mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Eskolako eremuan erretzea
- l) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 dekretuko 30 artikuluan zehaztutako beste edozein jokabide.

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34. artikulua)

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta baneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- e) Kargu-hartze idatzia

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

a) Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei.

f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

n) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat errepikatzea.

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 31 artikuluan zehaztutako beste edozein jokabide

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)

a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

b) Kargu-hartze idatzia.

c) Kargu-hartzea, ikasleen gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.

d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, hiru hilabetez gehienez ere..

f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 35 artikuluan zehaztutako beste edozein neurri.

**BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA
ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK
(32. artikulua)**

a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatzeko esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidoak edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

c) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakok, ezarritako definizioa aintzat hartuta.

d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokoak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka. bai taldean.

i) Aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide errepikatzea

j) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 32 artikuluan zehaztutako beste edozein jokabide

**BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA
ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN
ZUZENKETA (36. artikulua)**

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko; betiere, lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

3. Ikasleren bat, aurretiaz, zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikasle horrek ikastetxean duen matrikula baliogabetu egingo da, eta baja emango zaio ikastetxe horretan.

4. Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko abenduaren 2 ko 201/2008 dekretuko 36 artikuluan zehaztutako beste edozein neurri

